

7AR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

Orrilla
Maiatza
1989



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



KARDABERAZ

7, 8 ta 9

Nun zere

I.—KARDABERAZ BAZKUNA:	
Batzararen Kondeziari buruz: On Ma-	1-16
meñt'i buruz	
II.—BATZAR-AGIRIAK:	
1979-1980ko Batzar-ahizpena	17-21
III.—KONDARIA:	
Kardaberaz Batzaren Kondeziaren	22-32
diru-ibilketak	
IV.—ARTU-EMANAK:	
Euskerazfatu ia Kardaberaztaren	33-47
arteko artu-emanak	
V.—EUSKERA:	
Euskerazfatuaren laguntza-ponakak	33-48
VI.—LEMOIAK:	
Erribide-Itzelak ametak	49-54
VII.—ARGITATZAK:	
Liburu bi itzulan argitarapena	55-72
VIII.—BIZKUNAREN BIZIA:	
Bizkida bertze ibiltze-aldetarako. Di-	73-80
re-erreportajeak	
IX.—BANDAK:	
Kardaberaz-Batzararen seiak	81-87
X.—OMENALDIAK:	
On Mañeñt'i ia Zephyr Amerikar	88-93
epistolak omenaldit	

1977
1982

Saski-naski

41 URTARRILLA - EPAILLA 150 pezia

Ostrak	1
Simon Bolivar	2
Kameli-Lore andrea ta Pomaré erregeña	10
Baso-ondapenari ezaroteko arao berria	19
«The Economist»	
Wilhelm Tell	27
Australia	32
Azken ona, dana ona	37
«Walter Ruppert»	
Bei ote dakizu?	44
«Goroste'tar Mikel»	
Intzaur ondoo	47
«Jean Etxepare»	
Clark Gable	51
«Lekone'tar Jon»	
Zauri-belarra	59
«Bergaretxe'tar J. J.»	
Adiskideak nola egin	62
«Manisidor'tar Mikel»	
Lewis Carroll: idazle arrigarri	66
«Nestor Lujan»	
Aurrera bidan tiroka	72
«Latiegi'tar Bixente»	
Irueta'ren «Maite bat maiztzen det maizgarria»	106
«Latiegi'tar Bixente»	

IRAKUR ETA ZABAL EZAZU

EVSKERAZINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

1989
Urtarrila-Epailla

Vii Zenbakia.

AURKIBIDEA

	Orr.
Argiaren Egutegia. (Barruko azalean). Tene.	
Abostegia ta euskaklak. Olszar.	1
Go-Itzaintzaruntz A. Urrestarzu.	3
Arantzazu ta Bergara'ko batzarren ondoren. M. Oñativia.	8
Euskerazko izenak... Bixente Latiegi.	11
Kezka eta amets. Jaiakortaxarena ta Txomin.	17
Euskalerriko mentaritzak. Arrinda A. eta D.	21
Euskera lantzen. A. Zalarain.	28
Utsak, akatsak, okerrak. Taldean.	30
«Orlea» omendua. S. Oraindia.	32
Azpeltia ta Julena. Muntzlegi ta Sabiñ.	35
Tene Musika omendua. A. Arrinda.	40
«Kresala»'ren... J. Gorostegia.	44
Txomin Agirre ta bertsoak.	48
Izak! ko pitxiak. I. Zubiri.	51
Izak. P. Etxebarria S. J.	54
Erdara basterria. Manu. (Aizoko azalaren barruan)	
Omenaldiak. (Aizoko azalean)	

Zuzenbideak:
GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

GURE ALDIZKARIAK

ALDIZKARIAK

SASKI-NASKI

Interoi ondo...	Jon Encheperu	47
Clash Galdé...	Lekanda'tar Yan	31
Zanokak...	Bergara'tar J. J.	39
Adibidunak...	Román'tar J. J.	62
Lerri Carab...	Retor Lujan	64
Azkenak...	Leizor'tar Biondi	72
Interoi ondo...	Leizor'tar Biondi	106

IRAKUR ETA ZABAL EZAZU

Ba-dira urte batzuk Saski-Naski aldizkaria sortu zala. Gure eskuetara eldu dan azkenengo zenbakia 41 da, eta urtarril-epaill-aldiari dagokio.

Ez da txantxetako lana gaur Eskalerrian aldizkari bat argitaratzea ta zabaltzea.

Zein dala, uste dozu, irakurle, aldizkari bat aterateko zeregiñik gaitxena? Ez, zalantza barik, idazleen urritasuna, idazleak ba-dagoz, eta idazle onak egon be. Ez irarkolako lana, gure irarkolak, utsak ugari izan arren, bear ba'da langilleak erdeldunak diralako, pizka bat gaiñean egon ezkeru ondo egiten dabe lana.

Eta arpidedunak? Erri txikia be ba-gara eta erri onen barruan euskeraz berba egiten dabena ez dira asko eta onein artean be sarritan irakurteko zaletasuna ez da izaten aundia. Emen asten da ba, argitaratzaileen buruko miña. Baiña arpidedunak urri izatea be ez da arazorik aundiena, batez be aldizkaria aterateko bear diran langilleak euren lana geienetan duban egiten dabela jakiñik. Egia esan Saski-Naski'k idazleari ordaindu egiten dausku eta esker onez gagoz.

Arazoa diruaren urritasunetik sortzen da eta ainbat aldizkari ezin argitaratu izan ba'dira, orrexegaitik izan da: Irarkolako gastuak ordaintzeko beste diru iñondik ezin eskuratu izan dalako.

Asko poztuten gara ba, Saski-Naski'k olako oztupoak azpiratu eta aurrera jarraitzeagaz.

ZELAKOA DAN

Gure irakurleen artean asko izango dira Aldizkari eder eta egoki au ezagutzen dabena, baiña ori ta guzti be zeaztasun batzuk emon gura doguz.

Neuriz ZER baiño txikiagoa da, erdia inguru, eta orrelan aldean eroateko egokiagoa, baiña orrialdez askoz ugariagoa: eun orrialdetik gora izaten dauz eta ZER'ek 16 baiño ez.

Erabilten diran gaiak begiratu ezkeru, ba-dau ZER'en antza, barri-emote orokorra esaten dausenen barruan dagozelako, baiña ez da bardiña, beste jokabide batekoa baiño: Bere idaz-lanak munduan geien zabaltzen diran aldizkarietan artuak eta gaurkotasan aundikoak dira. Ez geienetan itzulpenak, gaia artu eta barru egindako lanak, ber-idatziak, baiño. Eta gai oneik erabilteak irakurlearentzat atsegin-bide aundia sortzen dau.

EUSKEREAA

Saski-Naski Euskerazaintzaren giroko aldizkaria da eta erakunde onek laguntza be emoten dautso. Orregaitik, darabilten euskerea erri-girokoa da. Idaz-lan batzuk gipuzkoeraz egiñak dira eta gipuzkoera argia ta erreza darabille eta beste batzuk bizkaieraz idatziak izanik bizkaiko euskera bateratua izaten da erabilten dabena, bateratua diñodanean, ez dot besterik esan nai auxe baiño: Bizkai'ko idazle guztiak bizkaieraz idazten dabenean darabilten euskerea dala. Guztiok dakigu Bizkai'ko euskerea ez dala bardin-bardiña Markiña'n eta Arratian, esaterako, baiña idazterakoan ez dozu igarriko zein dan markiñarra ta zein Arratiarra.

Aldizkarietatik artutako idaz-lanen artean, izaten dira idazleak asmatuak be, eta batez be sail bi dagoz oso irakurgarriak eta aldizkariak berak asmatuak diranak: *Bai ote dakizu* saila, euskal kultura lantzeko egokia, eta tarteka sartzen diran barregaiak.

EGILLEAK

Oñatibia'tar Iñaki eta Mendieta'tar Koldo dira zuzendariak, Oñatibia'tar Manu idazkaria, Edili Argitaldaria eta Graf. Igarri Irarkola.

Arpidetzea nai izan ezkeru, eta ez dozu izango damurik, auxe dozu zuzenbidea: Getaria Kalea, 21 beea. 20.005-Donostia. Urrutizkiña: (943) 42 84 59.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

LAU ALDIZKARI

ZENBAKI ONETAN

Gure ZER'en zenbaki onetan lau aldizkari aitatzen doguz elburu bardiñak daukezan erakundeak argitaratuak diralako. Gure ZER onegaz batera EUSKERA-ZAINTZA, KARDABERAZ eta SASKI-NASKI.

Ba-dira geiago be antzeko elburuak izanik, euskera-arloan euren lana egiten dabenak, baiña ez da erreza izaten eritxi batzutan batera joatea.

* * *

NONDIK NORA

Lau aldizkari onein sor-lekua erriak gaur eta emen darabilen euskerea da, baita euskera orrek bere kon-dairan izan dauan idazkerea edo ortografia.

Nora goazen itaundu ezkerero, erantzuna erreza da: Gure erriak darabilen euskerea indartu, aberastu, osotu eta gaurkotzera.

Euskerearen aurrera-bide onetan ez dogu nai ezela-ko etenik, lengoa, oraingoa ta gerokoa eten barik alkar-tzea nai dogu.

Eta euskera baturik nai dogun itauntzen ba'daus-kue, gure erantzuna onetan be erreza da: Euskaldun guztiok euskerea ondo jakin ezkerero, ez da baturik bear, alkar ulertzea erreza dalako, baiña batua etorriko ba'litz, eta zintzo jokatu ezkerero ba-leiteke etortea, gaurko gizar-tea albiste-bideakaz eta irarkiakaz ondo alkartuta dagoa-lako, etorri leiteken batu ori onartua litzake. Baiña guk euskerea ez dogu iñoz "erabilliko", gure laborategietan ez dogu baturik egingo. Ori erriaren lana izango da.

*

ERAKUNDEAK

Ez da aiztu bear aldizkari bakoitxak bere giroan erakunde bat daukala: Kardaberaz aldizkariak Kardabe-

raz erakundea, ZER aldizkariak Bizkai'ko Euskeraza-leak, Euskerazaintza aldizkariak bere izeneko erakun-dea edo Erri-Akademia, eta Saski-Naski'k Gipuzkoa ko Euskerazaleak.

Erakunde oneik, sendo diraue eta lan aundia egiten dabe euskerearen alde eta beste lan batzutatuz batera egiten da aldizkariarena.

Gaiñera erakunde bakoitxak bere inguruan irakur-leakaz talde aundia osotzen dau. Orrelan, bide au oso zabala dala esan bear da, naizta beste bide batzuk, bear ba'da, zaratatsuagoak izan.

*

ITXAROPENA

Zer lortuko ete dogu? Gaizkatuko ete dogu arrisku gorrian dagoan gure euskerea? Zelako euskerea izango ete da urren etorriko dana, etorten ba'da? Itaun onei erantzutea ez da ain erreza, etorkizunari begira egiten diran itaunakaz geienetan jazoten danez.

Itsuak ez gara, eta gaur dagoan giroak euskereari ikutu aundia egingo dautsola uste dogu: Ikastoletan, Urrutikuskiñean, ainbat aldizkari ta egunkaritan eta ainbat liburutan erabilten dan euskereak eragin aundia izango dau. Baita arrisku aundia be: Gure sendietan euskerea galtzen doa, ezagutzen doguz ainbat sendi izkuntza bitan diardenak, gurasoak euskera egin eta seme-alabak erdera erantzun eta ori urteetan, eta sarri-tan ikastoletan dabilzan seme-alabak dira. Ori jazoten da euskera oso ezbardiña dalako euren artean erabilli bear leukena... Zenbat indar galdu dauan gure euske-reak ariñegi ta indarrez batua sartu dalako!

Olako okerkeriai urtenbidea zabaldu-gurean diardu-gu guk, erriko euskerea bizirik atera naian. Baiña gure indarrak labur geratzen dira. Dana dala, ba-daukagu itxaropena, itxaropen barik ez genduke egingo egiten dogun lana.

OARRAK

BIZITZARAKO AOLKUAK

ITZI JOATEN

Begira, Josue, ez egiozu iruzur egin zeure buruari, ez gelditu eguzkia; itzi orduai ariñeketan joaten, ordu bakoitza azkena da-ta.

Baita burrukan egiten da gauaz be: Lotan zalantzak izaten dira eta ilteko orduan be bizi gara. Ez dago itaunik erantzun barik: "Ezin zeintekeze joan Ni noan tokira" (Jn. 8, 22) esan eutson gizataldeari Jesus'ek eta Juda'tarrak esan eben: "Bere burua ilgo ete dau". Ez dau Egilleak bere burua ilgo ez eta eguzkia amatau be, bere argia lurrean obiratzten dau, onen erraiak argitaratzen dauzala. Itzi, Josue, gauak seaskearen bakea ekarri dagiala, biar beste egun bat izango da.

ARAGIAN ALA GOGOAN?

Maitasuna: Zorionekoa izan naiteke sendiaren eta lagunuen maitasunari garrantzi ta ardura geiago emoten ba'dautset.

Lana: Zoriontsua izan naiteke neure zeregiñak ondoen egiteagaz poza artu ezkeru.

Balioak: Zorionekoa izan naiteke garaille diranen norgeiagoetan ibilli baiño neure buruari ta nortasunari arreata ta ardurea emotea lenago artu ezkeru.

Onartzea: Zoriontsua izan naiteke nire eskuetan ez dagoanari garrantzirik emoten ez ba' dausat.

Bardintzea: Poztu egin naiteke bizitza-dendunean, eztabaidan, zalantzetan, lanean, atsedenean, olgetan eta otoitzean neure burua bardinduko ba'neu (Unamuno'ren pentsabideak).

BEGOÑA'KO ANDRA MARI

Begoña'ko Andra Maria'ren irudiari buruz barri laburrak emon-guraz nator.

Bizkai'ko seme-alaba askoren gogoko izango dirala-koan nago eta Bizkai'ko Zaindari dogun Amaren iruditik asten naz.

Irudi onek, Artagan tontortxuan, Bilbo azpian dala, eta Begoña ko eleizeren babespean, antxiña-antxiñatik dauko bere santutegitxua.

Bilbo erri lez sortu zanetik daukagu irudi ori, gitxi gora-bera.

Ez dakigu non eta nok egiña edo taiutua dan. Bizkai-barruan egiña ete da?

Daukan itxuratik, ara zer atera geinken: Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta inguruetan zabal aurkitzen diran antxiña bateko, Erdi-Aroko, irudien egitura ta antza daukazela. Egitura bereko irudi asko dira gure inguruan: Bizkaia'n Zaldibar'eko Gatzaga'n, Derio'n, Busturiko San Kristobal'en, Arantzazu'ko Justo eta Pastor Santuen eleizan, Arrieta'ko Jainko'n, Fika'n eta Lamindano'n. Eta Gipuzkoa'n Zarautz'ko Andra Mari, Asteasu'ko Kurutze Deunaren eleizakoa, Getaria'ko San Prudentzio eleizakoa Aizkorriko San Adrian'goa eta Lazkao'koa... Ez doguz diran guztiak aitatu. Aita Lizarralde'k olako irudi guztiak "aizta bikoitxak" izena ezarten dautse.

Guztion artean erti-balio ta ederrez, ederrenetarikoa da Begoña'ko Ama'rena.

Lenengo begirakadan, olango irudia orduan baserria zan Begoña'ko erri txikian amalagarren gizaldiaren asieratik agertzea sinisgaitx egiten jaku, baiña ez dogu aitzu bear Eleiza orren Jabe eta patroï Bizkai'ko Jauna zala. Ortik etorri leikegu argibide bat. Begoña k bere eleizea eukan jaun orren ardurapean eta jaun onek artzen ebazan Begoña ko Eleizearen eta Bilbo'ko Santiago'ren eleizearen amarrenak. Don Diego edo onen aurretikoen bat ez ete zan izan Begoña ko Ama'ren irudi ain ederra emon ebana?

Erantzunik emon-eziñean ba'gagoz be, ez dauku asko ardura. Zer-ikusi aundiagoa dau irudi onen edertasunak eta ez Begoña'n eta Bilbo'n bakarrik, Bizkai'ko semeen biotzetan beronek artu dauan indar eta garrantziak.

Andres MAÑARIKUA'ren
"Santa Maria de Begoña" liburutik
euskeratua.

LETONA

GAURKO GAUZAK

NORKERIAK

Nik ez nekian Laterri-Barruan ezbardinkeririk egoanik be, baiña atzerriko aldizkari baten irakurri dot Gasako Madrid'eko Gotzaiñak esan dauana: Katoliku bizien aurkako ezbardinkeria dagoala •oraingo sozialisten agintaritzapean.

Jazoera onek Kuba'n urte batzuk dirala jazoten zana gogoratzen dausku: Katoliku lez agertu eta bere burua ezagutzen ebana, bigarren edo irugarren mailiako erri-tarra zala.

Auxe jazoten da emengo laterrian, baita beste laterri askotan be.

Adibidez, erri-aurrean, laterri-maillan albiste-bideetan norki batzuk baztertuta aurkitzen dira katoliku diralako.

Erri kristiñauentzat jazoera ori lotsagarria dala diñogu, esaterako, errigintza ta gizarte eginbearretan ekiteko ez dirala sinistedun edo katoliku biziak esan eta jakinerazo bear dabe.

Gure egun oneitan euren burubide edo gogoeta onartzen ez dabenentzat, bide ori gat eta gogor egingo da.

KRISTIÑAUEN ARERIOAK

Batzuk beintzat egiz dira: Komunista Jainko-bakoak dira-ta, beti darabile kristiñautasuna aurrean eta eze-reztu guraz: Irakaskintzan, bildurra sartuz, askotariko erasoen bidez.

Ez dabe ondo eroaten erlejiño bizia daukanik eta kristiñauakaz ezelango artu-emonik gura ez daben are-rio benetakoak dira.

Gizabide ta zurtasunezko lege guztiai uts egiten dautsee.

Polonia'n abade ikasteko etxeetan 10.000 gazte dagoz, Europa'ko sortaldean eta Ipar-Ameriketan dagozan bai-ño geiago.

Txekoslovakian Eleizearen alde etenbako jokerea daukenak, gitxi-gorabera, 60.000 erritar dirala ikusten

dogu. Aberri orreitan gazteen artean edonon berbiz-kunderik indartsuenaren ezaugarriak agiri dira. Kristi-ñau katolikuen Jaungoikoaren sinistea daukela, Jainko-bakoen aurka agertzen dira.

*

ELEIZEAREN ETA JAUNGOIKOAREN LAGUNAK

Gu geu arduratzen ete gara Eleizearen eta Jainkoaren lagunai begira?

Gure inguruko biztanleen artetik euneko bostek irakurten dabe astero zerbait erlejiño-gaiari buruz.

Nire ustez, egunkariak damoskuen argibidea ez da sinisgarria. Erroma ta Dublin dik datozen elez-giroko barriak eta albisteak, politika ta kiroltako barrien antzera, txikartuta agertzen dira.

Eleizearen irudia zentzunduna ta umekeribakoa izaten da, iñori kalterik egin barik esandako gauzak.

Eleizeak bere gizandi, ziñaldari ta santuak daukaz, bere andratasuna ta gizontasun gorengoa ta deuntasun agiria agertzen dauz eta gauza orreik egiztuta erakusten dira.

Gaurko munduak be santutasuna ta Jesukristo ta Jaungoikoaren ziñaldariak ugari daukoz.

Jaungoiko-zaleak diran eguneroko ta izparringiak mezu isillak agertu eta agerkarien gaisoak alboratu bear leukeez eta euren orrialdeetan onartu Jainkoaren seme-alaben talderik onenak egiten daben aukerratzte osoa ta Jesukristo'k betiko zorionera eltzeko bide artezez emoten dauskun poz-atsedena erakutsi.

Gizarte txautzaille ta iruntzikor onek eriotzara garoazan poz-zorion joankorra eskintzen dausku. Gure alkarte-bideak, izparringiak, irrati ta teleikuskiñak erlejiñoko albisteak erabilten dabez kirol eta politikako gai barriak zabaltzen dabezen antzera.

Gure kristiñauak alkarteen bear-izanik aundiena, dauke Jesus'en izenez ornidu ta atondurik, zelan aren irakatsiak gure biziera zuzendu bear daben jakiteko.

EGILUZE'k

ARDANTZA LENDAKARIARI

Jaun ona:

Ba-dakit kristiñau katoliku zintzoa zarala eta ni 82 urteko abade zar eta entzute-bakoa naz, ez besterik. Apal baiña Igarle bateri lez Jaungoikoak abadeari emoten dautson eskubideaz, zerbait esatera natortzu.

Joan diran Gabonetan, eguerdian, amabietan teleikuskiñaren egitarauan Aita Santuak jardun eban berbetan, Urbi et Orbi izena daroan ekiñaldian. Ekiñaldiak iru zati eukazan: Berbaldia, 45 izkuntzetan Gabon-Zorionak emotea eta bedeinkapena parkamen osoaz batera.

Jakingura ta ardura aundiaz nengoan gure euskerea erabilliko ete eban zorionak emoteko ordu orretan.

Deduz eta itzalez Aita Santuaren abotsa entzuten itxaron neban eta une baten teleikuskiñak erderaz minztatuko zala Aita Santua iragarri eban.

Aita Santua apur bat gelditu egin zan eta baretasunaz baiña urduri egoala agertzen eban, eta gazteleraz eta katalanez emon ebazan zorionak. Gure zori txarrez euskerea ez zan aiatatu be egin.

Zergaitik izan ete zan? Euzkadi ta euskotarrak (betiko euskotar batzuk) eriotza negargarrien egille ziralako? Olako griña daukenai ori kentzeko gai ez garalako? Gabon jaietan, Jesus gorrotoa aldentuten, bakea ekar ten, benetako poza banantzen, borondate oneko gizonai zoriona eskintzen etorri zala edo olako zerbait geurre izkuntzan entzun al izatea, beste batzuk eurenentz entzun al izan daben antzera, pozzarria izango zan.

Zintzo jokatu gura izan ezkeru, ezagutu bear dogu Joan Paulo Erroma'ko Aita Santuak, gure sinismenaren zuzendari danak, mundu onetan Jesus'en ordezkari dogunak, ikaskizun ederra emon dauskula, izadiak eta Jaungoikoak emon dauskun euskera ederraz arrotu ez gaitez.

Aita Santuak asarre egon bear dau gugaz, gabon-egun agurgarri orreik adierazten dabena beteten ez daki-gulako edo ezin dogulako, kristiñau lez jokutzen ez dogulako.

Gogoratu dagigun igaz be Aita Santuak ETA-koai arduraz eskatu eutsela Gabon-Aldian beintzat bake-

unea edo guda-arteko epea emon egien. Orduan be gure arteko batek, eta ez edozeiñek, gorengo zan batek, lotsagarriz, "Aita Santuak ez ekiala zer eta nori eskatzen eutson" erantzun eban.

Baiña ba-leiteke beste zio batzuk naiz azpi jokoak izatea Aita Santuak euskeraz berba ez egitea lortzeko. Orregaitik, apal eskatzen dautsut Aita Santuari eskaria egin dagiozula urrengo gabonetan edo aukerea datorrenean beste izkuntza batzukaz batera euskerea be sartu dagian.

Ba-dakigu, Lendakari Jauna, zuk alegiñak egin dozu-zala, egiten eta egingo be bai, ikarabide guztiak Euskal-leritik aldendu daitezcan eta ETA taldeari argi ta garbi esaten deutsozula, sarritan esan be, itsukeri ta zorakeri bildurgarria dala, laterri aundi bategaz eta au gitxi ba'litz laterri bien aurka, Frantziaren eta España'ren aurka, gudaketan ibiltea, gudea galduta legokelako eta bide ori gizarte bide-egokia ez dalako.

Euskaldun eta euskotar baketsuok esker onez eta zorrean gaukazuz zure jokabide zuzen orregaitik.

Ba-dakigu, iñok baiño obeto, Euzkadi'ren askatasuna nai dozuna eta orretan sendo zagozema, baiña ez ori indarkeriaren bidez lortzeko, auteskundearen eta legearen bidez baiño, Gernika'ko Araudiak zabaltzen dauzan bideetatik asita.

Aita Santua ez doa zure aurka, ez dago zugaz asarre, berak ba-daki, Sabin'ek esan eban lez, Euzkadi'ren biotzean dagoala Eleizea.

Baiña nik neuk, orain neurez iñor ez izan arren, neure nortasun ezerezagaz baiña abadeari dagokion igar-le arnasaz eta zarren oarkuntzagaz, auxe diñotzut: ETA taldea biziko dala, Euzkadi bere eskualdeak kontuan artuta Suiza baten antzera nortasundun erria izatea lortzen ez ba'dogu. Ori lortu ezkeru, eskualdeak bear-tuta egongo dira euren kontura biziteko eta orduan ez leuskioe ETA'ri arnasarik emongo. Ziur egon. Ez dago beste biderik ETA ezereztu daiten, erri askatua eta eskualde askatuak osotua.

LETONA'k



BIZKARGI

Oraintsu EGUNA Euskal Egunkaria'ren ale bat irakurtzeko aukera euki neban. Guztiz zenbaki asko ez dira, izan be. Gudea asi ta gero sortu zan eta Franco Bilbo'n sartu zanean gelditu bear izan zan. Esku artean euki nebana 115'gn zenbakia zan, ain zuzen be 1937'gn Orrilla 16'gn egunekoa. Egun latzak areik Bizkargi aldean.

Ara emen EGUNA'k egun artan, lenengo orrian, emoten dauskuzan barriak:

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABE-KO AMARRETAN EMANDAKO AGIRIA.—Iparralde *gudoñak (Bizkaia)*: "Gure gudari-taldeak, artilleriak lagun-duta, gogorrenik-gogorren astindu ditu Bizkargi'ko guda-esi batzuk, bertako 566 mendixka artuaz".

Ondoren izparlariak, izen-buruak izki aundiakaz ta gero izparrak izki txikiakaz, onelan diño: "Bizkargi'ra begira egon giñan atzo egun guztian. Ementxe ziran ba joaldiak eta burrukaldiak... Artilleriak bidea gertu ebanen, mendia suagatuta ta arerioa atzeratuta laga zanean, gure gudariak euren esietatik eta gordelekuetatik urten eta mendiz gora asi ziran arerioa bere tokietatik kanpora jaurti ta atzeratzeko asmotan... Arerioak eragozpenak ipiñi nai izan ditu. Tiro ots gogorrean asi zan gure gudariak agurtzen. Baña oneik, arerioaren tiroei jaramonik egin barik, mendi zostorretan eskutauteko azti-rik eta gogorik barik, gorantza igon ziran menditxu bat artu arte. Mendi au Gondra-Mendi'ren egalekoa da. 182 zenbakidun tontortxua... Baña paxistak, mendi oneitan dabezan tokiak galtzea bereiztat ondamendia dala konturatuaz, alegiñak-alegin eta ekiñaldiak-ekiñaldi egin zituen eurretan eusteko. Lortu ebanik ez dogu ukatuko, baña eurretan, zuluetatik urten ezinda, odoletan nastuta, eundakak gudari laga bear izan zitun Illik, gure kañoien eta pusildunen suak jota...".

Orri oneitan leku urri dogu-ta ezin geinke bir-idatzi larregi, baiña bai aipatuko dogu aurreko egunetan izparlariak iñoana: "Burruka gogorren leku dogu Bizkargi au... Iru bider galdu ta iru bider irabazitako tontorra dogula esateak, joaldiren garraztasuna ta ekiñaldien bizi-tasuna agertuko dausku...".

Egun berean (1937'gn Orrilla 16'gn) Loiu'n jarritako Gudari-eritegian gengoan gudari talde bat, aurreko egunetan Bizkargi'tik eri-berebil edo anbulantzia baten ekarrita.

Nire gudako ingi edo paper zar artean agiri bat, Gudari-eritegi onetan idatzitakoa, aurkitu dot. Berak adierazten dausku Mungia Gudaloro edo Batalloiko gudari bezela an egon nintzala. Agiri onen egite-eguna, len aipatu doguna berbera da.

Bai, izugarrizko egun areitan Bizkargi'n egon giñan. Aurten berrogetamabi urte betetzen dira arrezkero. Egun gorri ta ikaragarriak.

Esaten asi da, ta izan be egia da, gudako belaunaldia il zorian dagola ta gudan ibili giñanok, apurka-apurka, udazkenian zugatzetatik orriak jausten diran bezelaxe, ba-goazala betikotasunera. Urte batzuk barru ez da egongo nori itaundu aldi artako barriak, illunabarra bateko jardun-aldian mai inguru baten, biotz-ukigarri ta pozkiro, entzuteko.

Ondorengoak laster asiko dira esaten: Nik entzun neutson nire aititari... Baiña ondiño ba-gagoz banakaren bat iñon entzun barik, oar-ikasiz, zeozer esan geinkela.

Adi-adi ba'zagoze, buru-belarriak ipiñiaz, nik edes-tuko dautzuet egun areitan Bizkargi'n egiñiko eraso-aldi bat zelán gertatu zan.

Ona emen ba:

Izparlariak esan dauan lez, an ibili giñan bein batak eta bein besteak tontorra artu ta laga, txandaka. Alako batean euren menpeko geratu zan Bizkargi'ko tontorra ta bere Gurutz Deuna'ren baselizea. Izan be, nabaria zan alemandar egazkintzak paxistei egiten eutsen laguntza.

Gure agintariak mendi onek dauzan tokiak galtzea ondamendia dala konturatuaz, len-bai-len barriro artzea erabagi ei-eben.

Larrabetzu eta Goikoeleiza'tik Bizkargi'ko barrenetara eroan ginduezan. Gure gudaloro edo batalloiak Mungia eukan izena. An alkartu gintzazan beste batalloiakaz eta bereala asi zan zurrumurrua ainbeste gudari-eragiera zertarako izango ete zan. Gutxi gora-bera, ango zer-egiña naiko argi egoan.

Laster jakin genduan zertarako etorri giñan: Goi-zean galdu zan tontorra, arratzaldean barriro artu bear dala. Orixe zan agindua.

GUDALDIA

Buruzagiak alkartu ziran egitamua asmatzeko ta euren eretxiz, elburua lortzeko, auxe zan egokiena:

Illunetan paxisten egazkiñak ez dirala ibiliko-ta, eraso-aldia gabaz egitea obeto izango litzakela gogoratu eben. Itsumustuan egin bear zan eta bonbaka. Orretarako eroan geinkezan aña eskuzko lerkaiak emon euskuezan. Gudal-buruak euren ordulariak batera ipiñi ebezan, eraso-aldian ordu berean ekiteko. Uste dot aukeraturako ordua gabeko amabiak izan zala. Une onetan, bat-baten, irrintzika ta Gora Euzkadi! deadar egiñaz, arerioaren guda-esi ta lezoi bonbaka eraso, eskuzko lerkaiak jaurtiaz, paxistei urten-erazi ta jardun tontorra artu arte. Au adierazi euskuen. Agindu itzala.

Estu-aldi ta une latz aietan ez genduan gogorik, bestetan lez, txantxetan ibiltzeko. Ixiltasunean norberak bere burua il-zorian ikusita, naiago eben otoiz-egin, autortu... An egoan kapellaua bere zer-egiñetan.

Gudaketa egiteko al genduan guztia urbildu bear gintzazan arerioen esietara. Gau illunean, ondo zabal-arazita ta gero, geldi-geldi giñoyazan aldatz gora ezkutan iñolako zarata egin barik. Aurretik, zilo-miloka, gudari batzuk oarle ta gidari bezela yoyazan, eta eragozpenik ez egoala ziurtu ondoren, besoa eragiñez jarraitzeko esaten euskuen... Olan, tarteka, arduratsu ta kez-kati giñoiazan, azkenean zer gertatuko ete zan gogoan erabiliatz...

Oi-dan legez, eurak be gau-zelatariak ezarri ei-ebezan guda-esi aurre aldietan eta agian salatu ginduezan, bat-batean tiroka ta bonbaka asi ziran-ta.

An ziran angoak! Balak eta lerkaiak alde guztietatik gugana ta illunetan, izarpean, ez geunkan ezetariko zulo edo muna gure gorputza nun ostendu...

Bereala asi ziran oivak eta aienekak... eta, len esan dogun lez, talde aundi bat eri-berbil edo anbulantzia baten, Loiu'n egoan Gudari-eritegira eroan ginduezan.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER
Mungia Gudalorokua

BETI DOINU BARDINEAN

Eskeintza: Aurtengo zoritxarrezko "Aberri-Egun"-ean inoiz baino itsuago eta inoiz baino bananduago dagozen alderdi abertzale diranai eskeinuta, nire biotz erdeinurik otzenaz.

"Ezerez barririk ez danik"
esaten dozue:
"zaarra danak gogaitu egiten dau".

Ara ba:
Beinola bizi izaten zan.
Beinola maitatu egin zan.
Beinola matxinadea ixiotzeko dei egin zan.
Beinola ume gaixo batez arduratu egiten zan.
Beinola Eskubideen eta Askatasunaren alde guda bat galdu zan.
Beinola norbera zaartu egin zan,
il egin zan.

Arean da, guretzat
bizi izatea, maitatzea,
gure buruak asaldatzea,
itxaropenak izatea,
arduratan egotea,
zaartzea,
iltzea,
betiko alperrekoak biurtu dira.

Au guzti au ez da geiago barririk izango.
Onek gogaitu egiten zauez,
zuek ildakoak.

ERICH FRIED

1989.eko Aberri-Egunean
germanieratik Bilbon itzulita.

I. MARTIARTU

AITA SANTUA DATOR

Idaz-lantxu au, lenagoko ikustaldia izan zanean idatzi eban gure D. Klaudio'k, bizi zala, baiña orduan ez gendun izan argitaratzeko aukerarik eta orain agertzen dogu, Aita Santua Compostela'ra etorri-aurrean, ba-daukela gaurkotasuna agertzen dauzan eritxiak uste dogulako eta gure D. Klaudio'renik ezer be galdu ez daiten.

AITA SANTUAREN ETORRERA DALA TA...

Guztiok dakigu zenbat esamez dagoan gure errietan Aita Santuaren etorrera dala ta ez tala: bai siñistedunen aldetik eta, geiago ondiño, siñisbageen aldetik: garestia dala, politika egitera datorrela, etb, etab. Berberak bein eta milla bidar esana da gogoen artzain bezela datorrela ta orrixe da, izan bere, egi bakarra.

Jaunak San Pedro, lenengo Aita Santuari auxe agindu eutson: Eta zuk Simon Pedro nigana biurtuaz beste anaiak siñismenean indartu ta sakondu egizuz ta Aita Santu danak S. Pedoren ondoren ta jarraile dira.

Orain gurera dator Ion Paul II^a agindu ori betetera. Orreri buruz siñisbage ta arerioak diñue: Ez dauka orretarako eskubiderik. Ori esatea baño lojika gutxiagorik daben gauzarik ete dago? Eurak, ara ta ona dabiz, nai dabena esanaz, esantzaren askatasunean oñarririk. Esantzaren askatasuna bear bada, zergaitik eurentzako bakarrik askatasun ori? Baña esan ta esan erria eurenera daroe, konturatu baga geienak, ontzat emoten dabe arerioak diñoena, euren kontura gauzak ausnartzeko gauza ez diralako askotan.

Ain zuzen bere, erri zeeiak artaldearen antza dauko askotan nora gende, ara Bixente... Bai ta be esaten da Aita Santuaren etorrera ori garestia dala. Garrantzi gutxiagoko gauza asko garestiakoak dira baño orrek gaitik marmarrik ez dot entzuten geienetan. Etorrera ori kutsutearren errian, mara mara, esan dira, maltsurkeri zitilagaz, ona bat: aoz aoz dabil guzur aundi au: Aita

Santuaren etorrera ordainduteko bakoitzat 500 peseta emon bearko dituga, nai ta nai ez. Zentzunbakokeri ori nork siñistu? ba askok eta askok siñistu dabe eta siñistuko dabe. Iñor bere ez da beartua ta bultzatua izango diru ori emotera, bakoitzak nai dauna emongo dau askatasun osoagaz.

Guk, esamezai jaramonik egin baga, pozik ontzat artu bear dagu Kristoren ordeazkoa dan Aita Santua.

Lenengoz dator gurera, gizon miragarri ori.

Apur bat gora bera, badakigu zer esango dauan, beste erri batzuetan esanak dakiguzelako: Ebangelioak diñuana esango dau baño ona izango da berberak, bero bero arpegiz arpegi esatea. Berberaren arpegia ikusiko dogu, berberaren abotsa entzungo dogu, berebiziko dardara somatuaz.

Orretarako gure biotzak gertau bear doguz ikustaldi ori alperrekoa izan ez dedin. Izango dira jendetza aundiak, goraka deadar ta irrinti miragarriak; trumoiaren zarata baño zarata aundiagoko diran txaloak; baño biotzak gertautu ez badagoz, dana alper alperrik. Euri zigorraren antzerakoak izango dira, euritza bat bateko zaparradearen antzerakoak. Bat bateko euritza aundia datorrenean, ur guztia ibaira ta itsasora doa, lurra legor itxirik bustiteko aztirik ez daualako euki. Une baten joan da ura, ta, euritza, alperrekoa. Gure biotzak gertaurik ez badagoz, Juango da Aita Santua eta etorrera alperrekoa. Geure biotz barruan oxin aundi bat egin bear dogu antxe Aita Santuaren itz eta oroimenak gordeteko gero eurak gogoratuaz bizia barritu ta sakondu dagigun gure siñismena. Auxeun da egin bear doguna; auxe da gure erri maiteak une larri larri onetan itxaropena indartuagaz bizi barria ta berbizkundera lortu dagian bear doguna.

ONDO ETORRIA; JAUNAREN IZENEAN DATORRENA!!!

GALLASTEGI KLAUDIOK

(82-7-28)

EUSKERAZAINTZA

SEIGARREN ZENBAKIA

Euskerazaintza Erri-Akademia'ren giroan lau aldizkari argitaratzen dira: Saski-Naski, ZER, Euskerazaintza eta Kardaberaz.

Saski-Naski 'ri buruz zenbaki onen beste orri baten egin dogu berba. *ZER* eskuetan daukazun au, Euskera-zakeak argitaratua, baiña Erri-Akademia'ren arauetara eta beronen jokabide-barruan dago.

Euskerazaintza, idaz-lan onen joanean ikusiko dozu zer eta zelakoa dan.

Kardaberaz, izen au daroan taldeak argitaratzen dau eta urtero eltzen jaku. Kardaberaz'tarrak artu-emon estuetan diardue Euskerazaintza'gaz eta Euskerazaleakaz.

Baiña orain EUSKERAZAINTZA aldizkaria aitatu ta zabaldu nai dogu, idazlan onen bidez, beste iru orreik gogoratu ba'doguz, onexegaitik izan da: Erri-euskerearen giroan lan egiten dala eta aldizkari onein bidez be arlo ori jorratzen dala irakurleak ikusi dagian.

Seigarren zenbakia da eskuetara eldu jakuna, urtariletik epaillerako epeari dagokiona.

IDAZ-LANAK

Erri-Akademiaren aldizkaria dan ezkeru, emen agertzen diran lanak beste aldizkarietakoak baiño sakonagoak eta zeatzagoak dira.

Argia'ren egutegia aztertzen dau Tene'k. Eun urte oneitan aberriak izan dagikezan goraberak, euskerearen arloan izan daitekezan arriskuak aitatzen dauz Tene'k.

Abostegia ta izkelkiak da au idazten dauan idazle apal beraren idaz-lana. Abostegi-arloan, "fonetika"n euskereak dauan aberastasun aundia gogoratzen dau idazlanak, ortik lur-irudi-txorta edo "Atlas Linguistiko" egikeran arazo au kontuan artu bear dala gogoratu. Izkuntzalaritza-arloan lan au diakronian barik sinkronian sartzen da eta aurrerantzean be antzeko gaiak buruz idatzi al izango dodala uste dot, zenbaki guztietan ez ba'da be, noizean bein. Maixu-lan txikia egin neban arazo oneri buruz eta zer-esan asko daukat.

Goi Yakintzaruntz, idazten dau Andoni Urrestarazu adiskideak, bear ba'da gure irakurleak obeto ezagutuko dabe idazle arabar au "Umandi" izen-ordeagaz. Itz egitea zer dan eta orretan adimenak dauan zer-ikusia aztertzen dauz oraingo onetan.

Arantzazu ta Bergara 'ko batzarren ondoren idazpurua dala idaz-lana argi ta ederra dakar Oñatibia'tar Manu'k. Idaz-lan onen muiña, Bergara'ko jazokizun jakingarriak eta Erri-Akademia sortzeko an agertu ziran zioak dira, baiña bide batez amar urte lenago Euskera Batua sortzeko izan ziran jokabide okerrak aztertzen dauz.

Euskerazko izenak... Bixente Latiegi'ren idaz-lana. Erdi aroko narrukiak aztertzen eta euskerazko izenen, batez be toki-izenen, sustraiak billatzen maisua dogu Bixente.

Kezka eta amets, Jakakortajarena'tar Txomin'en idaz-lana. Oraintsu eskuratu doguz idazle onen erleai buruzko jakingarriak bere liburu ederrean. Txomin'ek Argentina'n erri osoa aurrera atera eban erleen arloko lana bide dala eta arlo onetan maisu aundia dogu, baiña ez gitxiago euskerea lantzen, ainbeste urte erbestean egin arren. Lan onetan euskereak izan dauan zabaltasuna gogoratzen dauku, bide batez euskereak barruan'dauzan galtzeak aitzu barik. Irauteko euskereak baserrietatik urietara sartu-bearra daula da bere oarra. Gero euskera batuak ekarri dauan bidea aztertzen dau, irratikuskiñean erabilten dan euskerea aztertuz.

Euskalerriko merkataritzari buruz idazten dabe Arrinda anaiak: Itxas-ontziak nondik nora, izkilluak, kompetenzi gaiztoak, bide zabalak, itxas-lapurren arazoa...

Euskera Lantzen: Zatarain'dar Anbrosio arduradun dala, Euskerazaintzak lan ederra egiten dau, gaur ain bearrezkoak doguzan itz trebebidetakoak euskeratzen, eta lan orreik Egunkarietan agertzen dira. 350 'era arte eldu dira euskeratze jakingarri oneik eta emen azkenengo zatia agertzen da.

Utsak.. Akatsak... Okerrak... agertzen dauz talde batek. Arlo au oso egokia da gaur zabalkundean eta bideetan

ikusten doguzan esaldi okerrak zuzentzeko, gauza barre-garri asko be asko ikusten doguz, egia esan, barre-garriak baiño obeto esana litzake negargarriak edo lotsa-garriak esatea, eta or agertzen dira, zuzentzeko eta geu oker bardiñetara ez jausteko. Talde beronek agertzen dau MUNITIBAR'KO UDALA idazpuruagaz eskutiz bat, osagilleari euskerea ikasteko eskatuz, baiña zelako euskeraz!

"Orixe" Orexa'n omendua, idazten dau Aita Onain-dia jakitunak. Zenbat liburu eta zenbat idazlan edonon gure Aita Santirenak.

Azpeitia'tar Julene Arritokieta'; idazlea aztertzen dau Muniategi'tar Sabin olerkariak eta azkenean Julene'ren olerki batzuk, berak euskeratuak.

Tene Mujika omendua da urrengo idazlana, A. Arrin-daren. Tene Debarra, abertzalea, euskaltzalea, idaz-lea, itzultzailea eta bizitzako jakingarri batzuk aitutzen dauz.

Kresala'ren euskaltasuna eta euskalkerea da urrengo lana. Laukitxu baten gogoratzen jaku maiatzean dirala 125 urte Txomin jaio zala eta orregaitik Ondarroa'n omenaldi bat egiteko ustean dagozela. Ori dala-ta oraintsu il dan Juan Gorostiaga jakintsuak orain 25 urte idatzi eban lana agertzen da, Ondarroa'ko "Boga-Boga" aldizkaritik artuta.

Bersolariak eta Txomin Agirre da urrengo lana: J. Ibar-zabal, Balendin Enbeita, Urtubixako Peru, J. Azpillaga, Uztabide, Basarri, J. Lopategi ta J. Mugartegi bertsolar-ien ekiñaldiak dakaz, oneik be Boga-Boga'tik artuta.

Izadiko pitxiak liburuaren aurkezpena, oraintsu argi-taratua dan bere liburuaren aurkezpenean Iñaki Zubi-ri'k egindako itzaldia da.

Itzak lan laburra Etxebarria'tar P. Josulagun eta eus-kazale ospetsuarena. "Azpimarratu" gaur ainbestetan erabilten dan itza, erderatik zuzen euskeratua, azter-tzen dau.

Erdera baztertua, diskriminatua? da Manu'ren azken-lana.

Omenaldiak noiz eta zeintzuk diran barria emoten da azalaren laugarren aldean: Lino Akesolo'ri. (bi) San-ti Onaindia'ri eta Yon Oñatibia'ri.

GARRANTZIA

Zenbaki baten agertzen diran gaien zerrenda ori ikusita, iralurleak errez ulertuko dau aldizkari onen garrantzia noraiñokoa dan gaurko euskerearen giro-barruan.

Beste alde batetik, aldizkariaren aurkeztea bera be atsegingarria da, pozik eskuetan artzeko lakoa da.

Zuzenbideak: Getaria 21.

20.005-Donostia.

C. Larreategi 14, 48001 Bilbao.

OLAZAR'tar MARTIN'ek



LOIOLA'KO IÑIGO'REN LORATXOAK

JERUSALEN'ERA ERROMES

Iñigo Loiolakoa Iruñean zauritu eta biotz-barritu zanean, lenengo Arantzazu'ra joan zan, gero Katalunya'ko Montserrat era, eta andik Bartzelona'tik zear Jerusalem'era, Jesus bizi izan zan Lur Santuak ikustatzera.

Erromesaldi onetako gora-berak Iñigo'k berak edes-tuten ditu bere "autobiografian".

«Eta Bartzelona'n nengoala Jerusalem'era joateko garaia etorri zan. Nik lagun barik joan gura neban, Jaungoikoa bakarrik lagun gura nebalako. Italiaraz berba egiten ez nekielako lagun bat artzeko esaten eusten nire adiskideak, baiña nik beti ezetz erantzuten neutsen, iru birtute euki gura nebazalako: maitasuna, sinismena eta itxaropena, eta lagun bat eroango baneu aren laguntzan itxarongo nebala, eta jausiko banintz arek lagunduko eustala jagiten, eta olan neure itxaropen guztia arengan jarriko nebala, eta gero aren adiskide egingo... Eta nik neure itxaropen osoa Jaungoikoagan bakarrik ipiñi gura nebala. Eta au nik neure barruan sentitzen neban ez esaten neban.

Eta asmo onegaz Jerusalem'era eroango ninduen ontzian ez neban gura ez lagunik ezta janaririk sartu. Baiña ontzia artzeko tratuan asi nintzanean, dirurik ez neukan ezkerro, ontziko nagusiarengandik utsean —gratis— joatea lortu neban, baiña dana-dala bidean jateko "bizkotxo" janaria ekarri bearko neban. Bestela ez nindun ontzian artuko.

Baiña biderako bear zan "bizkotxo" eskuratzeko eskean asi nintzanean neure barruan kezka andiak sortu jatazan, pentsatuz: au da zuk, Iñigo, Jaungoikoagan zenduan itxaropen osoa? Eta kezka onek neke andia emoten eustan. Azkenean zer egin ez nekiala neure barrua autorleari zabaltzea izango zala onena erabagi neban, eta autorleak zera erabagi eban: ontzian jateko bear neban "bizkotxo" eskuratzeko, eta neugaz eroatea, obe zala.

IÑIGO LIMOSNA ESKE

Eta Jerusalem'era joateko andra bateri limosna eskatzera joan nintzanean, onek nora joan gura neban itan-

du eustan. Nik Jerusalem'era joan gura nebala ez neutsan esan gura, eta erdi egia bakarrik esan neutsan: Erroma'ra joan gura nebala. Eta andreak orduan: Erroma'ra joan gura dozu? Nik ez dakit ba ara doazanak zelan etorten diran! Berba oneikaz andreak esan gura eustan, espirituko gauzetan Erroma'n gitxi aurreratuko nebala.»

Beste jazokizun au ez deusku Iñigo berak edesten, baiña Bartzelona'n orduan bizi zan batek esaten deusku, onetako au:

Iñigo beste emakume bateri limosna eske joan jakonean, onek asarratuta esan eutsan: ganorabako alpe-rren antzera ara-onaka ibili barik, obe egingo zeunke zeure etxera itzuliko baziña. Iñigo'k apal apalik erantzun eutsan: egia diñozu, andrea, pekatari lotsabako bat besterik ez naz... Onelako erantzunaz arriturik, emakumea damutu zan, eta limosna luzea emon eutsan.

Baiña Iñigo'k berak esandakoaz jarraitu daigun.

"Bartzelona'n ogei egun edo geitxoago egin ondoren itsasoratu nintzan. Ontzian sartu aurretik nere sakelean bost edo sei txanpon zuri aurkitu nebazan, eta an ondartzan jesarleku batean gaiñean itxi nebazan."

BARTZELONA7IK ITALIATA

"Itsasoan aizeak txopa aldetik gogor joten ebanez gero, bost egun barru Italia'ko Gaeta kairaiño eldu giñan. Ontzian bildurak jota egozan guztiak ekaitza gogorra zalako..."

Ontzitik urten eta bereala Erroma aldera abiatu nintzan. Bidean ama bat bere alabarekin alkartu jatan. Alaba mutil jantzita etorren. Baita mutil gazte bat be batu jakun. Laurok esketik bizi giñan.

Basetxe batera eldu giñanean su andi bat ikusi genduan eta su inguruan soldadu talde andi bat berotzen. Soldaduak jaten emon euskuen, baita ardua be geitxoegi, ea mozkortzen giñan edo... Gero lotarako banandu egin ginduezan: ama-alabak goiko gela batean, eta ni mutillarekin beko aterpe batean... Gauerdi aldera an goian garrazi eta negar garratzak entzun nebazan. Jagi nintzan zer ete zan jakitera, eta ama-alabak an bean

aurkitu nebazan negar batean bortxatu egin gura ebezalata. Ni asarre bizian deadarka asi nintzan, esanez: au be sufritu bearko ete dogu!!! Eta alakoak. Nire deadarrak entzunda soldaduak ikaratu ziran eta ez zan inor niri kalterik egiten ausartu. Gero irurok gauerdian etxe aretatik alde egin genduan Erroma'ko bidea artuta. Ordurako beste gaztea alde eginda egoan".

ERROMA'RA

Italia'ko lurraldetan kolera izurriteak eriotza asko egiten zituan, eta gaitzaren kutsapen bildurrez errietako ateak atzerritarrentzat itxita egozan. Orregatik Iñigo'k diño:

"Urrengo erri zen Fondi'ra eldu giñanean itxita aurkitu genduan, eta ezin sarturik gaua euritan busti-busti eginda ango elizpe batean igaro genduan. Goizean ez euskuen aterik zabaldu gura izan, eta ez genduan limosnarik aurkitzen. Ama-alabak oinez Erroma'rantz abiatu ziran, baiña, nik ain makal aurkitzen neban nire burua, aurrerago ezin eginik, antxe bertan geratu nintzan...

Egun aretan, zorionez, jende andia asko urten zan eritik Beatriz Kondesa Andreari ongi etorria egiteko. Eta ni biderdian, besterik eziñean, jarri nintzan, arren eta arren, laguntza eskatuz, izurriak jota ez, baiña gosearen makaltasunez geixó nengoela adieraziz. Errian sartzeko baimena bakarrik eskatzen neutsan limosna eskatuz indarrak barritzeko. Andra arek errez itxi eustan; eta errian eskatzen asi nintzanean txanpon asko eskuratu nebazan, eta onela indarrak barritu ondoren bideari jarritu neutsan, eta Erroma'ra Erramu Igandean eldu nintzan"...

IÑIGO ERROMA'N

Erroma'n emon ebazan Iñigo'k 1,523 urteko Aste Santu eta Pazko Jaiak, limosnaz biziz eta ango eleize-tan otoitz eginez.

Bien bitartean Lur Santuetara joateko baimena lortu eban. Norbaitek lagundu eutsan latinez txartela idazten. Baimen-txartel ori oraintsu aurkitua izan da Baticano'ko artxibategian eta an Iñigo'k "Enecus de Loyola" izenpetzen dau. Euskeraz Loiola'ko Eneko.

Jerusalen'era joateko gogoia zeukala jakinda, ara joateko pentsamentua kendu gura eutsoen, eta bere lagu-

nak bein eta barriz esaten eutsoen: diru barik ezin izango ebalu ontzian lekurik aurkitu, baiña Iñigo'k berak autortzen deusku: "Ni barruan ziur aurkitzen nintzan zelan edo alan zalantza barik Jerusalem'era joateko bide- ren bat eukiko nebala".

Eta VI.garren Adriano Aita Santuaren bedeinkape- na artu ondoren, "Pazko igandetik zortzi egunera edo Benezia'ko bidea artu neban, andik Jerusalem'era joateko".

BENEZIA'RA BIDEAN

"Benezia'tik Jerusalem'era joateko norbaitek sei edo zazpi dukat emon eustazan eta nik artu, bestela igaroko ez ete nintzan bildurrez.

Baiña Erroma'tik urten eta andik bi egunera pentsa- tzen asi nintzan, Jaungoikoagan itxaron ez nebalako egin nebala ori; eta diru areik artu nebazalako damu andia izan neban, eta bazterren batean diruak iztea izango zala onena pentsatzen asi nintzan. Azkenean beartsuei banatzea erabagi eta ala egin neban. Benezia- ra eldu nintzanean txanpon txiki batzuk bakarrik geldit- tzen jatazan, eta gau aretan jan eta lo egiteko eralgi nebazan.

Bide onetan kolera izurritearen bildurrez errietako ateak atzerritarrentzat itxita egozalako arkupetan egiten neban lo. Eta goiz batean lotatik jagitean ango gizon batek ain kolore txarreko ikusi ninduen, izurriaz kutsa- turiko baten bat nintzalakoan bildurrez ikaraturik iges egin eban.

Olan bidez bide Chioggia'ra eldu nintzan eta bidean alkartu jatazan lagun batzuegandik jakin neban ez eustela Benezia'n sartzan itxiko, osasun-txartelik ez ba'neukan. Eta lagunak Padua'ra joatea erabagi eben, an osasun-txartela eskuratzeko. Ni eurekaz batera abia- tu nintzan, baina ni makal nengoan eta eurak bizkorre- gi joiazan nik jarraiteko, eta illuntzean zelai zabal batean bakarrik itxi ninduen.

Zelai aretan nengoela Kristo agertu jatan, lenago Manresa'h agertu jatan lez, eta onek indar andia emon eustan, eta pozaldi onegaz urrengo goizean Padua'ko atetara eldu nintzan, eta atazainak ezer itandu barik sartzan itxi eusten. Nire bide lagunak ori jakin ebenean arrituta gelditu ziran. Eta bardin jazo jatan urteeran be".

SANTUAK

IÑIGO BENEZIA'N

"Benezia'ra eldu nintzanean atezainak ontzira etorri ziran an gengoan guztien txartelak aztertzeko, eta neuri bakarrik itxi eusten bakean.

Benezia'n esketik bizi nintzan eta San Markos enparantzan egiten neban lo. Eta Jerusalem'era joateko bearzana eskuratzeko ez neban bein be ezer egin, neure ariman ziur nengoelako Jaungoikoak Jerusalem'era joateko bideren bat enongo eustala.

Egun batean Espaiña ko gizon aberats bategaz aurkitu nintzan, eta an zer egiten neban eta nora joan gura neban itandu eustan, eta nire asmoa jakinda bere etxera bazkaltzera eroan nindun, eta gero beragaz euki nindun egun batzuetan urteera atondu arte.

Nik Manresa'tik oitura artuta neukan, bazkal denboran maian berbarik ez egitea. Inok itandu ba'eustan labur-labur erantzun, besterik ez. Maian esaten zana entzuten egoten nintzan, eta gauza batzuk buruan artzen nebazan, gero areitatik aria artuta Jaungoikoari buruz berba egiteko. Eta ori bazkal ondoan egiten neban.

Gizon zintzo a eta bere etxeokak nigaz zaletu ziran, eta euren etxean euki gura ninduen, eta orretan alegindu ziran. Etxeko Jaun orrek berak eroan nindun Benezia ko Dux Jaunaren aurrera, eta onek niri entzun ondoren Txipre'ra joian gobernariaren ontzian tokia emoteko agindu eban".

BENEZIA'TIK TXIPRE'RA

"Urte onetan erromes —peregrino— asko etorri zen Benezia'ra Jerusalem'era joateko asmotan, baina Soli-

man turkoak Rodas ugartearen artu ebala jakinik geienak euren lurraldetara itzuli ziran".

Amairu erromes bakarrik joiazan aurretik urten zan erromes-ontzian, eta zortzi edo bederatzik gelditzen ziran gobernariaren ontzirako. Baiña itsasorakoan Inigo' i sukargatx beroa etorri jakon, eta erak esango deusku zer jaso jakon. "Ontzian sartzeko eguna etorri zanean purga bat artu neban eta nire lagunak osagillari itandu eutsoen ea Jerusalem'era joateko ontziratu nintzekan, eta osagilleak baietz erantzun eutsoen, Jerusalem'en lurperatua izatea gura ba'neban. Baiña ni ontziratu nintzan, eta ainbeste goitika-botaka egin ondoren, urdailla ustuta erabat osatzen asi nintzan".

Txipre'ra bidean, aizaren faltaz, beladun ontziak illabete luzea emon eban, eta ontzian zer gertatu jakon Inigo'k berak edestuko deusku.

"Ontziko mariñelak danon begien aurrean zikinkeri eta gordinkeri asko egiten ebezan, eta nik gogor artzen nebazan. Nigaz batera joiazan espainiarrak olakorik ez egiteko esaten eusten, ontziko mariñelak ni ugarteren batean izteko asmotan ebilzela-ta.

Baiña, Jaungoikoak ala gura eban-eta, Txipre'ra laster eldu giñan. Kaiaren ontzia itxi ondoren andik 18 kilometrotara egoan beste aldeko kaira oiñez joan giñan. Salinas zeukan izena, eta an be lengo ontzian lez ez neban neure burua zaintzeko Jaungoikoaren itzaropena besterik artu.

Aldi guzti onetan Jauna sarritan agertzen jatan. Gauza borobil eta andi baten antzera, urrezkoa balitz lez, ikusten neban, eta onek poz andia emoten eustan".

GOIKOETXEA IÑAKI, S. J.



SENDATZA ARRIETA'N

Sendatz eguna, ordu aundia,
Jaungoikoaren graziaz,
zuen inguru ibili da gaur
MAISUA abots zoliaz;
aspaldi ontan edertu zare
Jainkozko jakituriaz,
zuzentasuna eta egia
arturik gogo biziaz.

Mendi gaiñean daukat erria
eta neure basetxea,
goitik berantza begira nago
lurrak daukan onberea;
graziz beterik dago zugatza
ta edurrezko lorea,
izadi dana eskarrez dago
goratuten Egillea.

Loretan lore zare gazteak
Jaungoikozko irudia,
goiz eder ontan artu dozue
indar barrien grazia;
begira zuen izateari
goitik beraiño zuria,
Jaungoiko beraz jantzi dozue
zuen izate gutzia.

Zugatzak lerden, lorak edertzen
ikusten ditut mendian,
gora begira usain gozoaz
dana lurrintzen lurrian;
zuzenbideko
sinismenagaz batian,
zabaldu gogoz eta pozagaz
gazte maiteok bizian.

PAULIN

GURE PATXI

Nor da bidetik gora
onuntz datorrena?
Niregan ba diñot nik
da ba esaguna!

*

Ur urrera eltzean
gure Patxi dala
ikus dot argi argi.
Bai aldatu dala!

Bizar zikin moltsoa
kirru antzeko ule
lepotik bera doa
bai zikin ta luze!

Begi tamal baltzakaz
amorruez begira
lengo begi argiak
zelan galdu dira?

Jaunaren bidetatik
aldendua zara
lurrean dozu biotz
gutziz zorotua.

Ene Patxi laguna,
nun aldatu zara?
Nork biur zaituala,
Ori da patxada!

*

Lengo arpegi alaik
pozezkoa txera,
aldatuz artu dozu.
Zelako txar era!

*

Nork lilliratu zaitu,
lengo gazte ona?
Euskal gazte ziñean
garbi ta sakona.

Uste dozu orrela
mundu au ontzea?
Munduk eroan zaitu
era ori artzera.

Zorioneko zara
ortik zear beti?
Badozu biotzean
alaitasun ezti?

*

Zure gurasok negar,
euzkadi sotinka,
gure erri on ona
galduaz arinka.

Orain gazte gaztea
buru arin zara,
urteak ioaten dira
azkenez galtzera.

Biur zaiz bein batean
gurason etxera
biotza garbiturik
eldu zaiz bakera.

Ausnartu zure barrun
zelako izan dan
euskal gazte langille
garbia danetan
bear zaitu erriak
bere errigintzan
biurtuz egiz zintzo
Jainkoren eskutan.

GALLASTEGIK (j')

GIZARTEA

ARAZOAK

ALDAKUNTZA

Aldaketa aundia oartu da gizartean azkeneko aldi onetan.

Aurrerapide andia izan da gizartean. Ukatu-eziña. Aurrerapide onek gizona be ez dau gitxi aldatu. Bere izakera, bere nortasuna, bere pentsaera ez dira lengoak.

ALKAR-LANA

Gizartea gizonak dagie ta zelakoak izan gizonak, gizartea alakoa izango da.

Gizarteak gizonak lez Jainkoagan billatu bear dau zorion-iturria. Jainkoa da indar, almen, zuzenbide, esku-bide ta askatasun-iturria.

Jainkoagandik atera ez da gizarte-zuzenbiderik, ez aberri-maitasunik. Jainkoa itxi ta gizartea oiñarririk bako arri-pilla besterik ez da izango.

Jainkorik, erlijioerik barik ez dauke indarririk esku-bideak, zigorrak, eginbearrak, zuzentasunak, ukoak. Griñak be galgarik barik ibilliko dira. Aske.

Danen ukoak bear dira gizarteak aurrera egin dagian, gizarteak iraun dagian, gizartea ondatu ez dedin.

Danen ukoak.

Agintariarenak eta menpekoarenak, langillearenak kaletarrarenak; nekazariarenak eta arrantzalearenak. Goikoarenak eta bekoarenak. Gizartea danak dagie ta danen egikizuna bearreko jako.

Baiña au ez da naiko. Beste zerbait bear dau.

Jaungoikoa, erlijioa, zilleistia. Zilleistirik barik legeak eta eskubideak eta zuzenbidea zapalduak izango dira. Oitura onak be ez dira aintzakotzat artuko.

EUSPENA

Izango dira bai erlijio-zillezistia dauan gizartean zoritxarrak eta ezbearrak. Gizarte ori osoa ez da izango akasdu gizonak egiña baita; baiña erlijioak asko arinduko ta gitxituko dauz zoritxar-ezbearrak. Griñak be indargetu egingo dauz.

Erljioa da ba gizartearen oiñarri ta euspen

ZUZENTASUNA

Jakintza-aurrerapideak ez dira naikoa gizartea zoriontsu egiteko.

Gaurko gizartea kezka, artega dago.

Gizarteak ogia eskatzen dau, baiña bakea ta zuzenbidea be bai. Bai, gaitza edo eziña zuzentasuna erlijioaren galgarik barik.

Zuzen jokatu ete leike gizonak gogape-kontzientzirik ez dauanean?

Zuzen eta egiz esan eban Amiel'ek: "gizarteak gogape-kontzientzian dau oiñarria, jakintzan".

Gizartea —Bossuet'ek esan ebanez— danen bizitza zorionsua egitera beartua dago.

Betor, betor Jaungoikoa gizartera. Berak zuzendu beiz munduko ekaitz eta burrukak.

GIZARTE-GAITZAK

ERLIJIOERIK-EZA

Sendotasunik ez dauken diztirak eta ametsak lillurata lez, mundurik onenean bizi dala uste dau gaurko gizonak.

Oker dago leiza sakoneruntz bai doa abidan.

Illunpetan dabil gaurko gizartea. Gizonak alkar joka dabiz. Egin dauazan asmakizun eta aurrerapideak itsututa Kristoren ebanjelioa, argien argi dan Jaungoikoren idazkia baztertu egin dau ta bere oiñak non jarri ez-da, illunpetan bizi da ainbat gauza ta gaietan.

Ortik sortzen dira gizartearen gaitzak.

Geure indarra kaz, geure asmakizunakaz naiko dogu zorionsu bizi al izateko —esan dabe itsuok alakook—.

Onela egin dabe birao Jaungoikoa gizarretik aienduta. Gizonagandik, sendiagandik eta gizarretik baztertu ta aldendu dabe Jaungoikoa; orobat legeditik, eta bizitza-agiritik.

Ikuskizuna oso illuna da. Oso ituna. Legeak Jainkorik barik, jakintza Jainkorik barik; sendia Jainkorik barik. *Jainkorik bakoak*" izena dauan Bazkuna be ba-da.

Langille-taldeak be Jainkorik barik bizi dira; laioak daroez adimenean, gorrotoa biotzean eta sotauts-polbora sakelean. Izan daiteke ikuskizun illunagorik?

BAKERIK-EZA

Bake-utsunea be ba-dau gizarte onek.

Bein Kristo ezetsi ebenetik ezin izan bakerik.

Gogora gizona bera, sendia ta gizartea. Ez da bakerik lurrean. Ez gizonarentzat, ez sendiarentzat, ez gizartearentzat, ez laterrientzat. Guda-utsean bizi gara. Bizi: mailla-guda, politika-guda, sendi-guda, laterri-guda.

Erljiñoari buruz Jaungoikoa baztertu dabe legeditik; nazio-arteko ar-emonetan erljiño-utsunea oartzen da; sendiari buruz ezkontza-lokarriak ausi gura dira; Jaungoikoa kendu eskoletatik sinisbako gaztedia azteko asmo baltz-dongeakaz.

Gizadia aspertuta, gogait eginda dago ta bake-billa dabil Danteren antzean, baiña ezin dau aurkitu bake ori bere griñai, andikeri-gurariari ta norberekeriari eskatzen dautselako bakea.

Bake au ez da lortzen papere-zatiakaz, lenengo putz-ariñak eroango leuke-ta. Bake au maitasun-besarkadan izenpetu bear da Kristok egin eban lez. Bake au adimen, biotz, naimen-batasunean datza; barrukoa da.

Biotzean dau oiñarria, Biotz-arimen-frutua ondorioa da.

OGIRIK-EZA

Gaurko gizona ogirik barik be bizi da.

Ekonomi-jakintzak aurrerapen andiak izan dauz gizarte-azua **ebazteko**.

Alako bide **batzuk** be artu dauz, baiña alperrik

Bide barriak zabaldu dauz an-or salerosteak banantzeko; alan be millak eta millak ezbearrean, gosez, billoizik. Jaungoikoaren zigorra dirudi. Jaungoikoak gizonak berak dagian pekatu-motan zigortzen dau gizona.

Gaiztakeriak eta zuzengetasunak agintzen dau Jaungoikoaren ordeztu eta pekatuok daroe gizona zoritxarrera.

Goimaitasuna dan Kristo kendu gizartetik; norberekeria jarri; zuzentasuna dan Kristo kendu dau ta zuzengetasunak agintzen dau; errukia dan Kristo kendu dau ta gogorkeria ta ankerkeria jarri; ebanjelioa ezetsi dau ta dirukoikeria jarri bere ordeztu. Emetik sortzen da lizunkeri-egarria.

Ona emen gaurko ikuskizun itun-illuna. Zelan osatu gaitzok? Zelan atera ta erauzi gaitzok gizonaren biotzetik?

Bide bat bakarria dago: ebanjeliora biurtu; ebanjelioa ezarri. Ez da beste biderik. Bide onek bakarrik biurtuko dasku antziñako bakea, antxiñako zoriona.

SINISMENIK-EZA

Gizartea il-zorian dagoala dirudi. Kilikoloka aurkitzen da bere sustraietan. Kezkaz eta urduri erriak. Gaitza aurrera doa. Gaitz onen sustraia non aurkitu? Gaitz onek non dau bere iturria?

Gizonak gogo-mundua ukatu ta galgarik barik ta azke bizi gura dau. Ta gizarte-azua ezin oiñarritu, ezin ezarri indarrean, ondasunetan eta aurrerapidean. Bearbearrekoa dau goi-neurritzko lege bat.

Sinismenik eta itxaropenik barik osatu gura leukez gizonak gaitz guztiak. Eziña.

Gogo-mundua ukatu ezkerro dana bera dator. Bera bakea, zoriona, begirunea; bera aginpidea, bera gizonen eta errien eskubideak. Ankerkeria nagusi.

Alperrik aleginduko da gizona gizarte-gaitzak osatzen lurreruntz begira.

"Etxeak jasoteko aldaroko arria da oiñarri —esan eban ederki idazle batek— Ankerkeriak, gorrotoak, banakuntzak bakarrik ezin ekarri leikez egundo ez bakea, ez zoriona. Sinismenak bakarrik argitu leike gizona gizartegaitzak osatzeko. Sinismenik barik illunpetan eta galdu-ta ibilliko da.

Itsu asko dago goitar gazak ikusteko. Beste batzuk lurreko ondasunetan dauke biotza ta griñak geiago egin-da lizunkeriaren yopu biurtu dira.

ATSEGINKERI-EGARRIA

Gizona ezin bizi leiteke atsegintasunik barik.

Jaunkoak gizona egitean utsune andi bat jarri eban bere barnean eta utsune ori ezin dau bete atsegintasunik barik. Biotzak utsune ori zerekin bete aurkitu arte, beti izango dau egarri ori, gose ori, amets ori, sukar ori.

Alan be oker dago gizona utsune ori lurreko atsegintetan billatzen dauanean.

Lurreko atseginkeriak ezin bete leikie biotz-utsune ori. Jaungoikoak elburu bat emon eutsan gizonari ta elburu onen aurka ez dan bide-zear billatu bear dau utsune ori bete leiken atsegintasuna.

Eta lurreko atseginkeriak, batez be lizunkeria, Jainkoak jarri dautsan elburuaren aurka dago. Gizona Egilearen eskuak egindako tresna bat da; tresna ori Egileak jarritako legearen arauz dabillanean bakarrik doa gizona zuzen eta ziur bere elburura.

Tresna au biotzak zuzendu bear dau. Biotzak egiazko atsegintasuna billatzen ba dau, illezkorak diran ondasunak billatzen ba'dauz, ogasun ugariak sortuko dira

GIZARTEA

bizi-bidean. Baiña biotza txirringa nasai lez bata-bestera ba'dabil, lurreko osin loietan eta lizunkeri-ontzi-barruan ondatuko da.

Ona emen lizunkeriak sor-erazten dauazan gaitz batzuk: Jaungoikoa itxi; bere legea ausi, ta Egillearen-gana urreratzen daben bide guztiak ezetsi.

Zenbat gizon eta zenbat emakume lizunkeri-egarriz; lizunkeriaren yopu eginda.

Auxe da gaurko gaitzen sorbururik andiena. Lizunkeriak itota dauko gizartea. Suak lez dana erre ta kiz-kaldu dagi. Arima il dagian atseginkeri onek ia danak moskortu dauz. Abere biurtu dauz gizon-emakume griña zital onek.

Gaurko gizonak griña zital au gurtzen dau. Belau-niko jausten da bere aurrean. Danak kendu ta asetu gura dabe egarri au. Baiña oker dagoz onela pentsatzean.

Jaungoikoak bakarrik asetu leike biotz-egarri au. Jaungoikoak bakarrik bete biotz-egarri au. Jaungoikoak bakarrik bete biotz-utsune au. Egi andia esan eban Iponako Agustin doneak: "Jauna, guere biotzak Zugan ditxaro ta artega ta urduri dago Zugan atsedean izan arte".

Beraz Jaungoikoagan eta bere legea betetzean bakarrik aurkituko dau gizonak bere biotza betetzeko dauan atsegiña.

GOIRIA

0

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI JAKINTZAREN GAIAK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK ' (LECTURA F)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14 - 2. - BILBAO-1

JUANTXO-TXIKIREN SARIA ETA ZIGORRA

Juantxo-txikik okerrekoa egin dau? Zirt eta zart, zipli-zapla, belarrionkoak eta jipoiak ugari. Ori ez, guraso. Zigortzea baiño eba dozu oriez itz egitea.

Bere okerra uste gabekoa izan ba'da, ez dau zigorrik merezi, iñondik be ez. Zuk maiko-zapi zuriaren gaiñean ardo-basoa edo tinta-boteillatxo utzi duzu aaztuta. Bitartean, ara non datorren Juantxo-txiki jolasgure biziarekin eta zapi ertzari tiratu egin dautso, baita zure baso-ardoa edo tinta-botilla mantel zuriaren gaiñean utzitu be.

Juantxo-txikik artu ditun belarrondoko eta jipoiak entzutekoak izan dira, berak errurik izan ez arren. Errua zurea izan da, mai gaiñean baso-ardoa itzi dozulako eta tinta-botilla itxi gabe. Zeure burua astindu bearko zenduke eta ez umerik ikutu. Zeurea izan da errua eta ez umearena.

✧

Ostikoka ekin dio Juantxo-txikik bere neskameari, mirabeari, eztabaida baten ondoren. Eta, or zagoz zu agoa-zabalik, zirkiñik egin barik, zuri ardurarik ez balitzu lez; neskaren anka-ezurak ez dautzue zuri miñik emoten... Barrerik egiten ez ba'dozu, gaitz-erdi.

Orain asi bear zenduke zuk zirt eta zart, geldirik egon barik. Orrelako okerrik ez da parkatu bear.

Zer egin? Bere gogo gaiztoz oker portatu ba'da, oker egin dauela erakutsi eta agertu. Ori da lenengo urratsa. Bere okerkeria ezagutzen ba'dau, irabazi dozu zure umearen biotza.

Zigorra merezi ba'dau, maitekor zigortu: ikusi dagiala maite-miñez zigortzen dozula. Zigorrik onena, zure maitasunaren agerpena ukatzea da. Umeak maite ba'zaitu, indar izugarria izango dau zigor onek. Maiteago eta zigorra miñago. Maite ez ba'zaitu, berriz...

*

Asarre zagozan unean ez umerik zigortu, ez ziñake neurritsua izango-ta. Ez zigortu zeure asarrea baretzeko; justiziatik kanpo ibilliko zara eta zu nundik zabiltzan, umetxoa konturatu be bai. Injustiziarik ez dautzu parkatuko.

Gutxi zigortu eta gitxitan zigortu. Bear-bearrezkoa ez ba'da, ez zigortu. Zigorra Juantxo-txiki sendatzeko da; okerra sendatuko ez dauan zigorrik, ez sekula erabilli. Zalantzan ba'zaude, ez zigortu.

* * *

Saria ohea da zigorra baiño. Ondo saiatzen danean, saritu Juantxo-txiki. Saritu bildurrik gabe. Sari aukerakoak billatuko dituzu. Umetxo maitaleentzat, bere gurasoen maite-agerpenak dira saririk onenak.

Zure seme-alabak sekulan saritu al dituzu ondo portatu diralakoz...?

ARRINDA'tar ANES

Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.
Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.
Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.
Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

VIZCAINA A

1 00 PEZETA